



**SANEAMENDU-SAREEN INBENTARIOAK EGITEKO LAGUNTZA TEKNIKORAKO ZERBITZUA
KONTRATATZEKO ADMINISTRAZIO-KLAUSULA PARTIKULARREN AGIRIAREN KARATULA.
EXPEDIENTE ZENBAKIA: 3166**

Erregulazio harmonizatuko kontratua	☒ BAI ☐ EZ
Espedientea izapidetzea	☒ Ohikoa, ☐ Urgentea, ☐ Larrialdia, ☐ Aurreratua
Mota	☒ Irekia ☐ Ireki sinplifikatua (SPKLren 159.1 art.) ☐ Ireki super sinplifikatua (SPKLren 159.6 art.)

A.- BOTERE ADJUDIKATZAILEA

1.- Botere adjudikatzailea:	Consortio de Aguas Bilbao Bizkaia/ Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa
2.- Kontratazio-organoa:	☐ Zuzendaritza Batzordea ☒ Presidente ☐ Gerentea
3.- Kontratuaren arduraduna:	Oier Galdos Emaldi
4.- Kontratazio Zuzendariordetzaren harremanetarako datuak:	contratacion@consorciodeaguas.eus Administrazio/teknika arloko kontsultak: 944 873 100
5.- Kontratatzailearen profila:	www.consorciodeaguas.eus https://www.contratacion.euskadi.eus/hasiera/

B.- KONTRATUAREN XEDEA

1.- Kontratuaren xedea: SANEAMENDU-SAREEN INBENTARIOAK EGITEKO LAGUNTZA TEKNIKORAKO ZERBITZUA 2.- Zer beharri erantzun behar zaion: Kontratuaren xedea zera da, laguntza teknikorako ekipo bat izatea saneamendu-sareen inbentarioak egiteko, Sare Sekundarioko Proiektu eta Obren Arloko giza baliabideen eta baliabide materialen koadroa osatuko duen ekipo bat, hain zuzen. Hauek dira jasotako lanak: • Saneamendu-sareen inbentarioa. • Beste lan batzuk: Udal estolda-sareen egoerari buruzko diagnostiko-txostenak eta hobekuntza-proposamenak eta bestelako lan topografikoak. 3.- Loteka banatzea: ☐ Bai ☒ Ez Loteka ez banatzearen justifikazioa: BBUPEk partzuergoko udalerriekin lankidetzan egiten dituen saneamendu-sareen inbentarioak egiteko ezinbestekoak dira Sare Sekundarioko Proiektu eta Obren Arloa udalekin koordinatzeko aurretiazko lanak. Inbentario-lanak egiteko hainbat enpresa existitzeak udalekin koordinatzeko lanak oztopatuko lituzke.
4.- CPV: CPV kodea: 71000000-8 Deskribapena: Arkitektura-, eraikuntza-, ingeniari-tza- eta ikuskaritza-zerbitzuak.
5.- Aldaeren edo alternatiben onargarritasuna: ☐ BAI ☒ EZ Onartzeko kondizioak eta aldaera edo alternatibarik izan lezaketen elementuak: Ez da aplikagarria
6.- Izaera juridikoa



B.- KONTRATUAREN XEDEA

☒ Administratiboa ☐ Pribatua

C.- KONTRATUAREN PREZIOA

1.- Lizitazio-aurrekontua
(BEZa gabe)

BERREHUN ETA HOGEITA BOST MILA
(225.000,00) EURO

2.-Kontratuaren balio zenbatetsia: 585.000 euro

Loteak:

☐ BAI

☒ EZ

3.- Prezioa zehazteko sistema:

☐ Oroharreko prezioa

☒ Prezio unitarioak

4.- Urteko ordainketak eta aurrekontu-kontsignazioa:

Kontratuaren aurrekontuko urteko ordainketak eta kontratuaren gastuaren aurrekontu-aplikazioa:

2025. urtea: 160.21.227.07 partida

60.000,00 €

2026. urtea: 160.21.227.07 partida

165.000,00 €

5.- Prezioen berrikuspena:

☐ BAI

☒ EZ

6.- Finantzaketa kanpoko funtsekin:

☐ BAI

☒ EZ

7.- Ordaintzeko modua: Arrunta. Hileko ziurtagiria.

8.- Konturako ordainketak: Ez

D.- KONTRATUAREN EPEA

1.- Iraupen osoa
HAMABOST (15) HILABETE

2.- Epe partzialak.

☐ BAI ☒ EZ

3.- Luzapena

☒ BAI ☐ EZ

Bi (2) luzapen gehienez, bakoitza urtebetekoa.

4.- Bermealdia: Ez da aplikagarria

5.- Kontratua exekutatzeko tokia: Ur Partzuergoaren hainbat instalazio.

6.- Lanak zatika jaso daitezke ☐ BAI ☒ EZ.

E.- BERMEAK

☒ Behin betiko bermea: % 5

Zenbatekoa: Adjudikazioa

☐ Berme osagarria:

Zenbatekoa:



F.- KAUDIMEN EKONOMIKOA EDO FINANTZARIOA

Urteko negozio-bolumena, amaitutako azken hiru urteetako negozio-bolumen handieneko urteari dagokionez, kontratuaren batez besteko urteko ordainketa halako bat izan beharko da gutxienez. (180.000,00 euro)

G.- GAITASUN TEKNIKOA ETA PROFESIONALA

Azken hiru (3) urteetan enpresa-mailan egindako lanen erreferentzien zerrenda aurkeztu beharko da. Lan horiek agiri honetan lehiatzen direnekin lotura izan beharko dute.

Aldi horretan egindako zerbitzu nagusien erreferentzietatik abiatuta, exekuzio handieneko urtean metatutako urteko zenbatekoa batez besteko urterokoaren % 25 edo handiagoa izatea eskatuko da. Alderdi hori egiaztatzeko, ulertuko da urte anitzeko kontratuak modu uniformean gauzatu direla kontratuaren iraunaldian zehar, non eta kontrakoa berariaz egiaztatzen ez den. Erreferentzia zehatz horien artean, obra ongi egin izanaren ziurtagiriak aurkeztu behar dira, egindako lanak deskribatzen dituztenak, bezero kontratatzaileak —pertsona publikoa nahiz pribatua— emandakoak.

ENPRESA-SAILKAPENA

ENPRESA-SAILKAPENA ☐ Bai, fakultatiboa ☒ Ez

H.- LIZITATZAILEEK AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

1.- 1. gutun-azala: Erantzukizunpeko adierazpena.

2.- 2. gutun-azala: Balio-judizioen mende dauden irizpideei buruzko dokumentazioa.

3.- 3. gutun-azala: Automatikoki kuantifikatzeko irizpideei buruzko dokumentazioa.

BALIO-JUDIZIOEN MENDE DAUDEN IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA

Preskripzio tekniko partikularren agiriko 8. apartatuan, lizitatzailleek eskaintzak aztertzeke aurkeztu behar dituzten agiri teknikoaren edukia eta irismena zehazten dira.

AUTOMATIKOKI KUANTIFIKATZEKO IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA

Proposamen ekonomikoa, lizitatzailleak edo haren ordezkariak sinatua, I. eranskin gisa bildutako ereduaren arabera idatzia ezinbestean, eskaintako prezioan zerga guztiak barne hartuta daudela, BEZa izan ezik.

Proposamen ekonomikoa honako hauekin osatuko da:

Zerrenda horretan, preskripzio tekniko partikularren agirian zehaztutako unitateen unitate-prezioak sartu behar dira, bai eta lehiakideak aplikagarri gisa proposatzen dituen unitateen ere. Hori guztia, preskripzio tekniko partikularren agiriko 10. apartatuan ezarritako kondizioen arabera.

Lan guztiak exekutatzeke aurrekontua, unitate-prezioetan egindako lanen batura oinarri hartuta; lan horien neurketa bat dator aurrekontu partzialerako neurketarekin.

I.- ESKAINTZAK AURKEZTEKO TOKIA ETA EPEA

1.- Eskaintzak aurkezteke epea: Kontratatzailearen profilean adierazitakoa

2.- Eskaintzak aurkezteke tokia (AKPAren 13. klausulan ezarritakoa ez beste bat bada soilik):

3.- Eskaintzak elektronikoki aurkeztu behar dira ☒ BAI ☐ EZ

Eskaintza elektronikoki aurkezteke plataforma elektronikoaren helbidea:

<https://contratacion.consortiodeaguas.eus/site/3?language=eu>



J.- KONTRATAZIO-MAHAIA/ADITUEN BATZORDEA

Lehendakaria:

☒ Kontratazio-mahaia

Lehendakaria:

Ekaitz Mentxaka Corral.

Kideak:

Mikel Magunazelaia Pinaga.

Xabier Orue Moro.

Itziar Zarate Urrutia.

Gerardo Latorre Pedret.

Jose Manuel Pereda Renobales.

Idazkaria:

Gerardo Latorre Pedret.

K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

1.- Adjudikazio-irizpideak:

Baloratu beharreko alderdi gisa lehiaketa adjudikatzeko oinarri izan behar duten irizpideak honako hauek dira:

AUTOMATIKOKI KUANTIFIKATZEKO IRIZPIDEAK: 50 PUNTU

Irizpide honetan 50 puntu emango dira gehienez.

Eskaintza ekonomikoak eskaintza bakoitzaren baja-ehunekoarekiko (Bi) proportzioan baloratuko dira, honela:

Bmax	50 puntu
(Bmax + BBB) / 2	48 puntu
BBB	47 puntu
0,8 x BBB	46 puntu
0,6 x BBB	44 puntu
Lizitazio-aurrekontua	0 puntu

Non:

- Bi: Eskaintzaren baja-ehunekoa; lizitazio-aurrekontuaren eta eskaintzaren zenbatekoaren arteko aldea zati lizitazio-aurrekontua eginda ateratzen den emaitza, ehunekotan adierazita.
- Bmax: Gehieneko bajaren ehunekoa, eskaintzarik ekonomikoenari dagokiona
- BBB: Batez besteko bajaren ehunekoa, lizitatzailerik bakoitzaren baja-ehunekoen batezbesteko aritmetikoaren emaitza

Onartutako gainerako eskaintzen puntuazioa aurretik zehaztutako puntu-banaketa linealki interpolatuta aterako da.

Hori horrela, Bi baja bakoitzari esleitutako Pi puntuazioa honako hau da:

Baldin eta $0 < Bi \leq 0,6 \times BBB$

$$Pi = \frac{Bi}{0,6 \times BBB} \times 44$$

K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

Baldin eta $0,6 \times BBB < Bi \leq 0,8 \times BBB$

$$Pi = 44 + \frac{(Bi - 0,6 \times BBB)}{0,2 \times BBB} \times 2$$

Baldin eta $0,8 \times BBB < Bi \leq BBB$

$$Pi = 46 + \frac{(Bi - 0,8 \times BBB)}{0,2 \times BBB}$$

Baldin eta $BBB < Bi \leq (BBB + Bmax) / 2$

$$Pi = 47 + \frac{(Bi - BBB)}{(Bmax - BBB)} \times 2$$

Baldin eta $(BBB + Bmax) / 2 < Bi \leq Bmax$

$$Pi = 48 + \frac{(2 \times Bi - BBB - Bmax)}{(Bmax - BBB)} \times 2$$

BALIO-JUDIZIOEN MENDE DAUDEN IRIZPIDEAK: 50 PUNTU

1.- Exekuzioaren memoria teknika eta metodologia (20 puntu)

1.1.- Lan- eta antolaketa-metodologia orokorra

Kontratua garatzeko proposatutako metodologia orokorra zehaztuko da. Metodologia orokorrak lanerako eta antolamendurako moduaren laburpen argia eta zehatza izan beharko du.

1.2.- Inbentarioak garatzeko metodologia berezia eta adibidea.

Kontratuaren ezaugarrietara egokituta eta berezitatea egongo diren inbentarioak garatzeko berariazko prozedura garatu beharko du lizitatzailleak. Lizitatzailleak adjudikazioduna izanez gero garatuko dituen inbentarioen adibide bat emango du.

2.- Kontratuaren eskura jarritako baliabide teknikoak (25 puntu)

2.1.- Ekipo teknikoaren osaketa:

Esleitutako ekipa teknikoaren osaera eta hura kontratuaren xedera egokitzeko kideei eskatzen zaien kualifikazioa, dedikazioa eta antolamendua. Ekipa teknikoko kide bakoitzaren curriculum vitae laburtua erantsiko da, egin beharreko lanei buruzkoa. Formularen bidez ebaluatutako irizpideen ondorengo balorazioaren ondorioetarako, ezingo da datu nominalik erakutsi. Proposatutako ekipa teknikoko kideen esperientzia –baita enpresa-arlokoa ere– behar bezala egiaztatu beharko da.

Gutxienez, PTPAko 3. puntuan zehaztutako profil profesionalak aurkeztu beharko ditu. Datu garrantzitsuenak jasotzen dituen laburpen-taula bat aurkeztu beharko da, Excel formatuan. Hona datu horietako zenbaitzuk: kargua, titulazioa, profila, esperientzia-urteak eta dedikazioa.

Lizitatzailleak deialdi honen xede diren lanen antzekoak izanik azken 3 urteotan (ez gehiago) exekutatu dituen edo exekuzio-bidean dituen lanei buruzko erreferentziak aurkeztu beharko ditu, dagozkien zenbatekoak, datak, entitate kontratatzailea eta deskribapena zehaztuta.

2.2 Ekipa teknikoaren antolamendua.

K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

Lizitatzailleak kontratua gauzatzeko aurreikusten den antolamendua ezarriko du, eta hura osatzen duten profiletako bakoitzari esleitutako harremanak eta funtzioak zehaztuko ditu, aurreko atalean deskribatutako metodologiarekin eta prozedurekin bat etorritik.

2.3 Hirugarrenei azpikontratutako lanak.

Lizitatzailleak laguntza teknikoko lanen zati bat hirugarrenekin itundu behar dela aurreikusten badu, berariaz eman beharko du horren berri, lankidetzaz horren norainokoa adierazita, eta, halaber, dagokion konpromiso-agiria erakutsiz frogatu beharko du kontratua exekutatzeke beste entitate baten bidez aurkeztutako baliabideak izango dituztela, deklaratzearaz gainera kontratuaren esleipendun izanez gero konpromisoa hartzen duela kaudimen-frogapen gisa aurkeztutako bitarteko berberekin exekutatzeke kontratua. Ur Partzuergoarekin formalizatuko den kontratuan arestian aipatutako konpromisoa jasoko da.

2.4 Baliabideak eta azpiegitura teknikoak

Lizitatzailleak kontratuaren eskura jarritako baliabide eta azpiegitura teknikoak eta kudeatzeko eta erantzuteko gaitasuna. Beste alderdi batzuen artean, hauek baloratu behar dira:

- Ingeniaritza lan gehienak egingo diren bulegoa zehaztuko dute.
- Inbentario eta programa espezifikoak egiteko beharrezko baliabideak izatea, baita laser-ekipoak erabiltzeko eta puntu-hodeiekin lan egiteko aukera ere.
- Lantaldearen eskura jarriko diren baliabide teknikoak, hala nola testuak editatzeko eta planoak eta aurrekontuak egiteko informatika-ekipoak.
- Laneko arriskuen prebentzioaren helburuak lortzeko baliabide teknikoak

3.- Ingurumen- eta gizarte-irizpideak (5 puntu)

Diseinu-fasean dauden ingurumena babesteko neurriak baloratuko dira. Proiektatu beharreko obren bizi-zikloaren ingurumen-inpaktua murrizteko estandarrak eta arrazoizko bestelako neurri batzuk aplikatzea proiektuak idazteko lanei (gehienez 2,0 puntu).

Ibilgailu-flota modernoa eta jasangarria izatea baloratu egingo da (obra-zuzendaritzetarako eta landa-azterketetarako), zerbitzurako eskura jarritako ibilgailu elektrikoen portzentajearen arabera:

- | | |
|---|-------------|
| • Ibilgailu den-denak elektrikoak izatea (% 100): | 1 puntu |
| • Portzentajea ibilgailu elektrikoen % X bada (% 100 baino txikiagoa) | X/100 puntu |

Irizpide sozial gisa baloratuko da kontratua exekutatzeke lan-merkatutik baztertuta dagoen edo horretarako arriskua duen pertsona bat (1) kontratatzeke konpromisoa. 0,5 puntu emango zaizkio gehienez 6 hilabeteko iraupena duen kontratu bati, puntu 1 gutxienez 12 hilabeteko iraupena duen bati, eta proportzionalki 6-12 hilabeteko iraupena duen kontratu bati. Iraupena kalkulatzeko, LEHEN KONTRATUA bakarrik hartuko da kontuan, eta ez da ondoz ondoko kontraturik metatuko.

Gizon eta emakumeen arteko desberdintasunak baztertuko dira, lantaldeko emakume-portzentajearen arabera, irizpide honi jarraituz:

- | | |
|--|------------|
| • Portzentajea % 50 baino handiagoa edo berdina: | 1 puntu |
| • Portzentajea % X bada (% 50 baino txikiagoa) | X/50 puntu |

Aurkeztu diren datuak behar bezala justifikatu beharko dira, horiek betetzeko konpromiso-gutuna eranstearaz gainera.

2.- Berdinketa hausteko irizpideak:

Eskaintza baten baino gehiagoren artean berdinketa jazoz gero, behean adierazitako irizpide sozialak aplikatuko dira berdinketa ebazteko, adierazitako hurrenkeran, eskaintzak aurkezteko epea amaitzean lizitatzailleak duen egoera kontuan izanik:

a) Enpresetako plantilletatik desgaitasuna duten edo gizarte-bazterketako egoeran dauden langileen ehuneko handiena duena; berdinketa gertatuz gero, plantillan langile desgaitu gehien duena edo plantillan inklusio-neurrien bidez langile gehien duena.

b) Plantillan aldi baterako kontratuen ehuneko txikiena duen enpresa.

c) Plantillan emakume enplegatuen ehuneko handiena duen enpresa.

d) Zozketa, aurreko irizpideak aplikatuta berdinketa ebatzi ez bada.



K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

3.- Eskaintza anormalki txikitzat jotzeko irizpideak:

Eskaintza anormalki txikitzat joko da honako egoera hauetako batean badago:

- Baldin eta, lizitatzaille bakarria egonik, lizitazioaren oinarritzko aurrekontua baino portzentajezko 25 unitate txikiagoa bada.
- Bi lizitatzaille egonik, beste eskaintza baino portzentajezko 20 unitate txikiagoa dena.
- Hiru lizitatzaille egonik, aurkeztutako eskaintzen batezbesteko aritmetikoa baino portzentajezko 10 unitate txikiagoak direnak. Nolanahi ere, zenbatekorik handieneko eskaintza ez da kontuan hartuko batezbestekoa zenbatzeko, baldin eta batezbesteko bakarria baino portzentajezko 10 unitate handiagoa bada, ausarkeria-atalase berria finkatzeko baino ez, eta ezarritako sailkapen-hurrenkeran inolako eraginik izan gabe. Dena den, neurrigabetzat joko da portzentajezko 25 unitatetik gorako baja.
- Lau lizitatzaille edo gehiago badaude, aurkeztutako eskaintzen batezbesteko aritmetikoa baino portzentajezko 10 unitate txikiagoak direnak. Hala ere, haietako eskaintza batzuk batezbestekoa baino portzentajezko 10 unitate baino handiagoak badira, egoera horretan ez dauden eskaintzekin bakarrik egingo da batezbestekoa, ausarkeria-atalase berria finkatzeko baino ez, eta ezarritako sailkapen-hurrenkeran inolako eraginik izan gabe. Nolanahi ere, gainerako eskaintzen kopurua hirutik beherakoa bada, batezbesteko berria zenbatekorik txikieneko hiru eskaintzen gainean kalkulatu da.

Talde bereko enpresek eskaintzak aurkeztu badituzte, eskaintzarik txikiena baino ez da kontuan hartuko anormaltasun-presuntzioan dauden eskaintzak identifikatzeko araubidea aplikatzeko, alde batera utzita eskaintza bakarrik edo taldetik kanpoko enpresa batekin edo batzuekin batera, aldi baterako elkarturik, aurkeztu duten.

4.- Lizitatzailleari, hautespen-prozesuan jarraitzeko, eskatutako gutxieneko puntuazio-atalasea:

Baztertzeko arrazoia izango da eskaintzaren balorazio teknikoan **25 puntu** gutxienez ez lortzea.

L.- KONTRATUA EXEKUTATZEKO KONDIZIO BEREZIAK

PTPAn zehaztutakoak.

M.- ZIGOR ZEHATZAK

PTPAn adierazitako kasuak eta ekintzak.

Ezarritako epeak ez betetzean inbentarioaren zenbatekoaren % 2ko zigorra ezarriko da atzeratutako 30 egun natural bakoitzeko; gehienez, inbentario bakoitzean onetsitako kostu-zenbatekoaren % 20 metatu ahalko da, eta kontratu osoaren % 10.

Lizitatzailleak proposatutako ingurumen- eta gizarte-konpromiso bakoitza ez betetzea zigortuko da, adjudikatutako kontratuaren zenbatekoaren % 2arekin, eskaintzaren balorazio teknikoan lortutako ehuneko puntu bakoitzeko.

N.- ADJUDIKAZIODUNAK AURKEZTU BEHARREKO ERANTZUKIZUN ZIBILEKO ASEGURUA

Arrisku profesionalengatiko erantzukizuneko aseguruia dagoelako egiaztagiria.

Ñ.- KONTRATUA ALDATZEA

Ez-aplikagarria.

O.- AZPIKONTRATATZEKO AUKERA

☒ Hasieran aurkezteko betebeharra

P.- SUBROGAZIOA

Ez



Q.- ERREKURTSO BEREZIA

- ☒ BAI
☐ EZ

BETEBEHARRAK KONTRATUA EXEKUTATU BITARTEAN

Lantaldeak ezinbesteko ekipamendu-baliabide tekniko guztiak izango ditu. Zehazki, eskura izan beharko ditu kontratuaren baldintza tekniko partikularren agiria betetzeko behar diren hardwarea eta softwarea. Hasiera batean proposatutako taldeko kideren batek baja hartzen badu, kontratistaren ordezkariak beste kide bat proposatuko dio BBUPeko kontratuaren arduradunari, baja hartu eta 15 egun igaro baino lehen, jakinaren gainean egon dadin. Proposatutako kideak nahitaez bete beharko ditu langileei eska dakizkiekeen kontratu-baldintzak, eta ordezkoaren kaudimen bera edo handiagoa izan beharko du. Nolanahi ere, bai ordezkariak bai taldeko arduradunak prest egon beharko dute, kontratuaren arduradunak hala eskatuta, lanen aldizkako jarraipena egiteko.

KONTRATISTAREN ORDEZKARIA

Adjudikaziodunak kontratu honi ordezkari bat atxiki beharko dio, behar adinako gaitasuna duena kontratuaren harremanei eragiten dien guztian jarduteko eta/edo enpresa ordezkatzeko. Ordezkari horrek eta adjudikaziodunaren agindupean dauden langileek ez dute Partzuergoarekin harreman juridikorik izango, ez eta lan-harremanik edo bestelakorik ere, ez kontratua indarrean den bitartean, ez kontratuaren amaieran.